

Xirrixti-mirrixti

- Bilduma bat edo erakusketa bat egin janariak eta edariak oinarri.
- Sorginen gaua asma.
- Baratze baten bisita egin baratzezainak lagundurik.



ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ

Janariak/edariak : zer da jaten, zer edaten ?

Adibideak eman janari/edari sailkapenaren arabera : esne, ogi, arroltze, jogurt, zopa...

Apairuak

jan/edan aditzak erabiliz, azken apairuak aipa eta ondokoak asma.



nor indikatiboan.

Aditzaren aspektua.

- Zer jan duzu atzo ?

- Zer janen duzu egun ?

- Ogia jaten da.

- Ura edaten da.

Ahoskera

Ikimilikiliklik ! : haurrak, hitz horren erraten saiatzen dira ; beste hitz luze zenbait asmatzen dituzte eta errepikatzen. Hortarako egoera berezi bat sor daiteke : Sorginen gaua da eta sorginek behar dituzte gauza miresgarriak egin formula luze batzuk erabiliz.

Hitz-jokoa

Irakasleak edo ikasle batek janari eta edari izenak erraten ditu eta ikasleek aldi oro ihardesten diote :

(jaten denean)

« kikiri ! »

(edaten denean)

« hurrup ! »

(ez delarik ez jaten, ez eta edaten)

« ikimilikiliklik ! »

Bestela egin daiteke : ikasleek kartoizko irudiak edo zinezko janariak esku menean dituzte eta irakasleak « kikiri » erratean, ikasleek jaten den gauza bat hartzen dute eta erakusten.